

408.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA-2021EKO APIRILA



MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

JOSEBA BERISTAIN

IRUDIEN SOINUGILEA



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
tu casa es nuestro

www.urrategiinteriorismo.com
Arrogete 27 Arretxe 9
20400 Eibar 20730 Azpeitia

Zure ametsak egi bihurtzen lagunduko dizugu



943 16 98 78

Info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

IBAIONDO BERRI

FASE BERRIA SALGAI

Kontsultatu



Ibaiondo Berri promozio berriko etxebizitzak

TXALONERREKA

AZKEN ETXEBIZITZAK

Kontsultatu



Txalonerrekan promozio berriko etxebizitzak



Eskaletza osorako bisita ezazu: www.alberdi-inmobiliaria.com



943 85 25 14

Info@alberdi-asesoria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA



MAXIXATZEN 408

2021EKO APIRILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ANDONI ELDUAÏEN SORALUZE



Aurkibidea

- | | | | |
|----|--|----|--|
| 5 | Iritzia Andoni Elduaïen Soraluze
<i>Geroaz</i> | 19 | Iritzi grafikoa Itxaro Iraeta |
| 6 | Hitz tantak Bizen Garcia,
Mintzalaguneko partaidea | 20 | Erreportajea <i>Gogoz, lanerako prest</i> |
| 8 | Izpiak eta hizkiak Jon Andoni
Martin, <i>Denbora</i> | 26 | Erretratua Felix Azurmendi,
Azkoitiko parrokoa |
| 10 | Iritzia Karmen Irizar Segurola
<i>25 urte. Bejondaigula!</i> | 30 | Plazan bazan |
| | Imanol Elezgarai, <i>Apreteu</i> | 32 | Akordatzen <i>Paperak altxor</i> |
| 12 | Elkarrietzeta Joseba Beristain,
musikagilea | 38 | Klik! Herriko pilotalekuak |
| 18 | Iritzia Intza Sudupe, <i>Azukre askeak, finduak...</i> | 44 | Kultura Irene Elorza Gereño
<i>Sorpresak eta ziurtasun lausoak</i> |
| | | 46 | Euskara Miren Alberdi, <i>Lekukoa mingainean</i> |
| | | | Bertsoa paperean |

MAXIXATZEN



Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua:

Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Aitziber Arzallus
Andoni Elduaïen Soraluze
Mailo Oiarzabal
Nerea Uranga

Diseinu arduraduna:

Iñaki Martinez Albizu
Publizitate arduraduna:
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Jon Andoni Martin
Karmen Irizar Segurola

Imanol Elezgarai
Intza Sudupe
Itxaro Iraeta
Gorka Larrañaga
Irene Elorza Gereño
Miren Alberdi
Haritz Alberdi

Inprimategia:

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 850 ale



PUBLIZITATEA



artelan
Tasio Arango
Erosko leku
Tel: 943.15.11.47
Fax: 943.15.11.47
943.15.11.47

- Mankiala
- Olio-pintura
- Akusarila
- Pastela-pintura
- Kola-makaria
- Zeramika
- Plasterak
- Eskulond

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala

Kale Nagusia 67 943-60 04 47 AZKOTIA
Uribarri 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

etk
Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

br
arkitekturaestudioa
santaklara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

Web proiektuak
Software ingeniaritza
elkarmedia()
info@elkarmedia.eus
943-85 88 74

PB sport
kaleak 7 • 943-02 56 66
Kale Nagusia 47 • 943-65 20 31
AZKOTIA

Dean
Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

ETXEZA TABERNA
Etxeza Etxea, 2/G. • 943-65 20 31

Naike
TATTOO STUDIO
JULIAN EROSAK AZPEITIA
672 17 88 51

KATTAGORRI ARTEA
TALLER ARTISTIKOAK
GOZ ETX ARRAZALDEZ: gaste eta helduentzat
kattagorriarte@gmail.com
674335068
Zuatzola kalea, 2. Azkaltia

ALDAKO
SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK
SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK
Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkaltia
Tel: 943-08 36 14 • 629 09 82 76
aldako.informatika@gmail.com

IBAIONDO BERRI
53 ETXEBIZITZA BERRI
www.aranbarri.com
ARANBARRI

Geroaz



ANDONI ELDUAIEN SORALUZE

Ilusioz, ziurgabetasunez, itxaropenez, segurtasun ezaz, desioz eta hamaika sentimenduz nahiz emozioz betetako hitza da *etorkizuna*. 2021. urte honen oraina ere horrelakoa ari da izaten, etorkizunak zer ekarriko digun ez badakigu ere. Ilusioz, itxaropenez eta desioz begiratzen diogu geroari, baina baita ziurgabetasunez, segurtasun ezaz eta sentimendu zein emozio handiz ere.

Egunerokotasunean beti sortzen dira ustekabeak edo nahigabeak, batzuetan onerako eta beste batzuetan txarrerako. Etorkizuna zerbait bada, zalantzaz betetako geroko egoera da. Ez nik, ez zuk, ez beste inork ez du etorkizuna ezagutzen, ez du geroa kontrolatzen. Edonola ere, sinesten dut etorkizuna egunez egun eraikitzea posible dela; gure erabaki bakoitzak etorkizuna sortzen du. Segundoz segundo, minutuz minutu, orduz ordu eta egunez egun, segidan datorkiguna da etorkizuna. Behar bezala ez bagara prestatzen, baliteke gauza onik ez jasotzea bueltan. Zoriona eraikitzea ez da sekula gerorako utzi behar, gaur sortu behar da.

Eta gauza bera gertatzen da etorkizunarekin. Gaur hasi behar da etorkizuna sortzen, orain eraiki behar da geroa. Etorriko zaiguna, hein handi batean, gaur ereindakoa izango baita. Komenigarria da etorkizuna guk geuk lantzea eta prestatzea, epe luzera bizitzako fruitu horiek jasoko baititugu. Egia da, era berean, une askotan hainbat arrazoiengatik porrot egiten dela bidean, gauzak ez direla espero eta nahi genituen bezala ateratzen. Eta egoera horren aurrean hiru aukera daude: kexatzea, onartzea edota aldatzeko borrokatzea. Halere, sinesten dut hirurak batera egin daitezkeela. Dena gaizki ateratzen denean kexatu gaitezke, eta jakina, onartu behar dugu gauzak ez direla espero bezala atera. Baina, hurrengo urratsa da benetan garrantzitsuena: aldatzeko borrokatzea.

Gaur hartutako erabaki bakoitzean, litekeena da biharko helmuga idazten aritzea. Eta bitxia da, askotan segundo bakar batean hartzen diren erabakiek aldatzen baitute bizitza. Oker egindako hori hurrengoan zuzen egitea norbere esku dago. Bestela harri berarekin egingo dugu tupust behin eta berriz.

Ibili bizitzan, eroriz ikasten baita oinez. Segi okertzen ikasteari utzi gabe, akatsak eginda prestatuko baigara etorkizunerako. Jarraitu ibiltzen, eta ausartu gaitezen etorkizun hobe horren bila joaten, merezi dugun etorkizunera abiatzen, lortuko dugun geroa gaur egiten. Sortu etorkizuna, eraiki geroa.

Ez etsi, eutsi! ■■■

**ASKOTAN, SEGUNDO
BAKAR BATEAN
HARTZEN DIREN
ERABAKIEK ALDATZEN
DUTE BIZITZA**

Bizen Garcia: "Konstantzia izan behar da euskara ikasteko"

TESTUA ETA ARGAZKIA: NEREA URANGA

Mintzalagun egitasmoan parte hartzen du Bizen Garciak sorreratik (1959, Santa Maria del Campo, Burgos). Maite Aierdi bidelagun duela dabil euskara ikasteko urratsak egiten. Mintzapraktika egitasmoak 11. ikasturtea du aurten Azkoitian, eta udalak zein AEK-k sustatutako egitasmoa da. Mintzalagun euskaraz hitz egiteko ohitura duten lagunak ohiturarik ez dutenekin elkartzeko programa da.

Orain dela 35 urte etorri zinen Azkoitira bizitzera. Nolatan?

Ezkundu ondoren etorri nintzen Azkoitira bizitzera. Senarra eta biok jatorriz herri berekoak gara. Senarra oso gaztea zela etorri zen Azkoitira; osaba-izebak zituen hemen, eta lanera etorri zen.

Azkoitira etorri eta euskara ikasten hasi zinen.

Azkoitian bizitzeko euskaraz jakitea oso garrantzitsua da. Niretzako euskaraz ez jakitea eragozpen handia izan da beste herritarrekin harremanak izateko edota beste pertsona batzuk ezagutzeko. Bi alaba ditut, eta haiek euskaraz ikasi zuten. Haiei eskolako lanak egiten lagundu nahi izaten nien, eta laguntza hori emateko, gutxienez pixka bat jakin beharra nuen euskaraz. Beraz, euskara ikastea erabaki nuen.

Hala, euskaltegira jo al zenuen?

Bai, aurrena Azpeitiko Udal Euskaltegian ibili nintzen, eta gero, Azkoitiko AEKn. Gustura ibili nintzen bai, eta merezi izan du. Baina euskara ikasteko konstantzia eta denbora behar dira; euskara ezin da bat-batean ikasi.

Orain dela 11 urte Mintzalagun mintzapraktika programa jarri zuten abian Azkoitian, zuk parte hartu duzu hasieratik. Zergatik?

Mintzalagunen Maite Aierdi izan dut bidelagun hasieratik. Hura niretzako oso inportantea izan da, pazientzia, konstantzia eta abar daukalako. Zoragarria izan da Maite ondoan edukitzea. Gurekin, ahal duenetan, Raul ere elkartzen da.

Hainbeste urte eta gero, elkar ondo ezagutuko duzue. Elkar ezagutzea eta konfiantza izatea garrantzitsua da. Hori zoragarria da.

Mintzalagunen parte hartzeak asko lagundu al dizu euskara ikasteko eta mintzatzeko garaian?

Bai, bai, noski. Maitek beti euskaraz hitz egiten dit. Ni batzuetan, barrutik hala ateratzen zaidalako, erderara pasatzen naiz, baina berak beti euskaraz egiten dit pazientzia handiarekin, eta hori oso ona da niretzako. Haren konstantzia eta gogoia izugarriak dira; niretzat funtsezkoak gainera. Pertsona batekin euskaraz hitz egiten gustura jardutea pribilegio bat da.

Astero elkartzen zarete, baina beti ez duzue gauza bera egiten, ezta?

Ez, askotariko gauzak egiten ditugu: erosketak egin, erakuslehoak ikusi, kafea hartu, ibiltzera joan, hondartzara joan... Autoa hartuta kanpora ere joan izan gara eguna pasatzera: Zarautzera, Donostiara, Gaztelugatxera, Gasteizera... Baita mendira ere: Urbiara, Erlora... Azkena, Pasaiaiko Albaola Itsas Faktoria ikustera joan ginen, eta handik Donostiara eguna pasatzera. Maiteri esker gauza asko egiten ditugu, ekimen handiko pertsona delako.

Euskaraz hitz egiteko eta ikasteko elkartzen zarete, baina lagunarte giroa duzue.

Bai, hala da. Garrantzitsua da taldean, gure artean, giro ona edukitzea. Horregatik iraun dugu hainbeste urtean.

Konfinamenduan nola moldatu zarete?

Konfinamenduak eta pandemiak ere eragin du Mintzalagunen. Konfinamenduan denbora asko egon ginen elkartu gabe. Gainontzean, Mintzalagun programako ikasturtea ekainean bukatu eta urrian hasten da, baina gu uztaillean eta irailean ere elkartzen gara.

Mintzalaguneko beste taldeekin ba al duzue harremanik?

Lehen gehiago elkartzen ginen, baina pandemia dela eta, azken Mintzalagun ikasturteak bereziak izaten ari dira. Beste urteetan egin izan ditugu Mintzalaguneko partaideok hainbat gauza elkarrekin: kantu poteoa, ikasturte bukaerako afaria, pintxo eta patata tortilla lehiaketak, euskarazko pelikulen emanaldiak... ■■■




Denbora

ARGAZKIA: JON ANDONI MARTIN

TESTUA: AITOR ARRUTI REZABAL

Bi esferak argi giro bustiko ilunabarrean.
Orratz bat ezkerrean, eskuinera begira.
Orratz bat eskuinean ezkerrera begira.
Denbora ez da kabitzen esfera batean,
natura ezin sartu borobil bakarrean. ■■■







25 urte. Bejondaigula!

Orain 25 urteko apirileko ostegun gau batez bildu ginen lehenbizikoz Maxixatzen martxan jarri zuen taldeko lau lagun. Etxe-Aitzeko terraza, hego haize epela, ilargi betea eta orduan irudikatzea zaila izango zen egitasmo eder baten ernemuina.

Bidea ez da erraza izan, eginez ikasten joan behar izan dugu eta ez haizea, ez jendea, ez dugu beti aldeko izan. Mingarria izan zen oso, hasieran, euskara eta euskal kulturaren inguruko hainbat lagunek egin zizkiguten kritikak. Egiak denak, ziur asko, baina mingarriak hala ere, ez baitzekarten hobetzeko proposamenik, egurra baino ez.

Gogoan dut euskara elkarteok eta tokiko komunikabideok jasotzen genituen kritikak zirela eta Lasarteko euskara teknikari den Iñaki Arrutik esan zidana.

Egindakoa hobetzeko tartea beti dagoela jakitun izanik ere, neure buruari bi galdera egiteko aholkatu zidan. Lehena, kritikatu gintuen jende horrek guztiak proposamen hoberik ba ote zuen. Halakorik ez bazegoen, geureari eustea zilegi zela esan zidan, eta egoteko beti erne eta zabalik etor zitezkeen proposamenei, baldin eta inoiz etortzen baziren. Bigarrena, Maxixatzenek izan zitzakeen akatsak gorabehera, ea zer ote zen hobe herriarentzat, Maxixatzenekin edo Maxixatzenik gabe bizitzea.

**EUSKARAZ BIZITZEKO
MOTIBAZIOAN ERAGITEA
ETA HORRETARAKO
GUNEAK INDARTZEA
IZAN DA BETI XEDEA**

"-kin jakina", erantzun nion nik. Segitzeko orduan, egiteko aurrera lasai, denon beharra zegoela eta euskaraz bizitzen jarraitu nahi bagenuen.

Hilabetekaria finkatu xamartuta zegoela hasi ginen kultur ekitaldiak antolatzen. Saioak beraiek bezain bereziak izan dira kulturgile handi eta txikiekin izan ditugun hitz aspertuak. Euskal Herriko hamaika txokotako jendea ezagutu dugu, bakoitzak bere iritzi eta bizipenak partekatu izan ditu gurekin emanaldiaren aurretik edo gero mahaiaren bueltan egindako mokaduan. Iritzi eta bizipen anitzak, baina euskaraz bizitzeko motibazio eta grina beretsua guztien begietan.

Aldizkaria argitaratzeari ere utzi behar izan genion aldi batez. Egoera hark ere izan zuen onik. Batetik, jende berria etorri zen taldera, eta bestetik, agerraldi

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



IMANOL ELEZGARAI

Apreteu

Sakatzeko, estutzeko. Hala eskatu zien Quim Torra Kataluniako presidente ohiak Errepublikaren Defentsa Batzordeetako (CDR) kideei orain dela bi urte Sant Julià de Ramis (Girona) herrian bere aurka manifestatzen zebiltzala. Ez da ohikoa instituzio bateko buruzagia kontrako protesta bat suspertzen ikustea, baina Torrak bazekien edonolako fenomeno sozial eraldatzailek –Kataluniako prozesu independentista kasu– aurrera egingo badu, kaleak martxan behar duela. Beharrezkoa da herritarrek antolatzea eta egitura propioak sortzea, botere politikoen eta mediatikoen bide-orrietatik kanpo euren bidea egin dezaten.

Herrian ere, hamaika urteren ostean, hainbat gazte antolatu dira eta Azkoitiko Gazte Asanblada sortu dute. Krisi sozial, politiko eta ekonomiko honetan, non botere ekonomikoei sistema mantenduko duen gizarte atomizatua komeni zaion, garrantzitsua da honelako talde autonomo, anitz eta eraldatzaileak sortzea. Aterio ekonomiko eta politikoei kontsumitzaile otzanak bazkatu nahi dituzte. Eredu horren aurka formatu eta lan egingo duen gazteria antolatua ezinbesteko kontrapisua da, beraz, apreteu! ■■■

publiko inprobisatu batean, nolabaiteko bat-bateko mani-festazioa egin genuen herrian. Aurrean nindoalarik, atzera begiratu eta poz eman zidan ikusi nuenak. Jende mordo zatorren atzetik, tartean ezker abertzaleko eta PSEko zinegotzi bana. Pozgarria izan zen hain ikuspegi desberdina duten bi alderdik euskararen inguruko egitasmo baten bueltan bat egin zezaketela ikustea.

25 urteko gazteak bere bidea hasi du oraintsu. UKT taldeko parte da orain Maxixatzenen komunikazio atala. Lan arindu ederra hartu dugu, bide oparoa aurreikusten baitiogu inondik ere, baina pena ere ematen du, hainbeste urtez hegalpean izandako sorkari horri joaten uzteak, denontzat hobe dela jakin arren.

Elkartera begira jarrita gaude orain. Komunikabidea atal bat

baino ez da Maxixatzenen. Euskaraz bizitzeko motibazioan eragitea eta horretarako guneak indartzea izan da beti helburu nagusia. Horretara bideratuko dugu jarduera aurrerantzean.

Gazteak ginen hasi ginenean, baina Maxixatzen bera bezalaxe, taldekideak zahartu egin gara. Geure bizi proiektuak osatu ditugu, eta taldeari uzteko inolako asmorik ez badugu ere, mende laurdenean hainbeste aldatu den munduari buruzko ikuspegi berritua duen jendea behar du gure taldeak.

25 urteko lanari errepasoa eginda, *bejondaigula!* baino ezin diogu esan geure buruari. Eta horrekin batera, *Ongi Etorri!* Maxixatzeneko eguneroko dinamikara hurbildu nahi duen edonori.

Lehenengo bileran pintxoak gure kontu! ■■■



"Zinematik eta musikatik gertu egon izan naiz, beti egin dute bat nirekin"

JOSEBA BERISTAIN MUSIKAGILEA

Soinu bandak egin ohi ditu Joseba Beristain musikariak (Azkoitia, 1978). Hogei urtetik gora daramatza azkoitiarrak filmetarako eta bestelako proiektuetarako musika sortzen. Hamaika proiektu egin baditu ere, Beristainek bere burua "ia zinemagiletzat" du.

Testua: **Andoni Elduaen Soraluze**. Argazkiak: **Andoni Elduaen Soraluze eta utzitakoak**.

Joseba Beristain musikari azkoitiarrak bi hamarkada oso baino gehiago daramatza soinu banden munduan murgilduta. Txiki-txikitatik izan du lotura musikarekin, 5 urte zituenean hartu zuen lehendabizikoz musika eskolarako bidea. Musika alboratuta izan zuen tarte batean, baina 16 urterekin barruko harra piztu zitzaion, eta musikarekin lotura berriak egitea erabaki zuen. Lagunekin batera musika talde bat baino gehiagotako kidea izan da Beristain. Musikarekiko zaletasunak eta etxetik jasotako "irudiekiko erlazio intentsoak" bultzatuta, musika banden munduan lan egiten hastea erabaki zuen gero. Harrezkero, era guztietako lanak egin ditu.

Nondik datorkizu soinu bandekiko lotura?

Izeba batek soinu banden zintak zituen, eta hark utzi egiten zizkidan nik entzun nitzan. Gogoan dut autobusean-eta walkmanean entzuten nituela soinu banden abestiak. Zinema ere betidanik gustatu izan zait. 12 urte nituela-edo estreinatu zuten *Batman* filma, eta niretzat zirrargarria izan zen, baita bere musika ere. Zinematik eta musikatik

gertu egon izan naiz; bi diziplina horiek beti egin dute bat nirekin.

2000. urtean egin zenuen lehen musika lana.

Hasieran, film laburren baterako-eta egiten nituen lanak. Lehen lana egin nuenetik, ordea, hogeitatu urte pasatu dira.

Umetan entzun ohi zenuen musika sortzen hastea erabaki zenuen, beraz. Nola oroitzen dituzu hasierako urteak?

Konfiantza nuen, soinu bandak egin nitzakeela sinesten nuen. Bestalde, iruditzen zitzaidan soinu bandak sortzeak zoragarria izan behar zuela. Askotan galdetu izan nion nire buruari zergatik hasi nintzen mundu honetan lanean. Une askotan blokeatu egiten nintzen, ez nuen asmatzen, edo ez nekien egoerari nola egin aurre. Paradoxikoa da apur bat. Beti izan dut garbi mendiaren gailurrera ailegatu nintekeela. Horretarako bidea luzeagoa ala zuzenagoa izango da, baina konfiantzarekin eta desioarekin gainditu ditzaket bestelako trabak.

Zein da zure helburua?

Lehen mailan dago filmetarako soinu bandak egitea, eta hori da nire helburua. Soinu banda interesgarriak edota estetikoki zein narratiboki





Musikagilea proiektu baterako grabaketa saioan.



Beristain, musika sortzeko duen estudio propioan.

nigandik gertuen dauden lanak egin nahi ditut. Edozein proiektu etorrita ere, guztiak nire egiten saiatzen naiz. Adibide bat ematearren, ez da oso erakargarria ontzi-garbigailu baten iragarki baterako proiektu bat jasotzea, baina beti dago norbere ekarpena egiteko zerbait. Proiektu bakoitzean dago pauso bat edo bi aurrera egiteko aukera.

Era askotako lanak sortzera iritsi zara.

Ikus-entzunezkoetarako lanak egiten ditut, eta hor gauza asko sartzen dira: dokumentalak, iragarkiak, film laburrak, filmak... Genero aldetik ere lanak desberdinak izan daitezke, filmak narratiboki zein soinu aldetik desberdinak direlako. Artistikoki agintzen lehena filma bera izaten da. Gero, zuzendaria, berak duelako ikuspegi orokorra, eta ondoren ni, zuzendariak nahi duena gauzatzeko musikarekiko jakintza dudalako. Halere, ikusi eta asmatu egin behar da proiektuak zer nolako musika eskatzen duen.

Eroso sentitzen al zara zuzendariekin adostutako lanak egiten?

Nahiago dut horrela, gusturago jarduten dut. Nire burua ia zinemagiletzat gehiago dut musikaritzat baino. Nahiago dut zinemagileak berak nahi duen istorioa kontatzea, eta nik nire musikarekin hori kontatzen laguntzea. Planoetan pentsatu behar izaten dut, oinarrian, narratibako musikan, eta azkenik musikan. Alde horretatik zinema mundutik gertuago sentitzen naiz.

Nola moldatzen zara zuzendariekin lan egiteko?

Orain arte erlazio ona eduki izan dut zuzendariekin, eta erraz ulertu gara, oso zinemazalea naizelako. Zuzendariari erraz jarri ahal dizkiet soinuen eta musiken adibideak, eta elkarriketa nahiko arinak edukitzen ditugu. Negoziazio uneak ere izaten dira musika gidoiak-eta osatzeko; hau da, musika non, zer musika eta nola jarri erabakitzeko. Normalean, behin eta berriz errepikatzen dut proiektu baterako musikaren inguruan dudak ikuspegia, eta akordioetara iristen gara. Beste batzuetan, berriz, zuzendariak esandakoa egin behar izaten da. Ohartu naiz, nik nire filma muntatzen dudala, baina zuzendariak ikuspegi zabalagoa eta garbiagoa duela filmarekiko. Azken finean, film batentzat jardun behar dugu lanean soinu bandak egiten ditugun musikariok, eta ez norbere musikaren mesedetan. Talde lana da filmak egitea.

Zein da musika sortzeko jarraitu ohi duzun bidea?

Aurretik, proiektuaren aurretiazko muntaia pasatzen didate. Animaziozko lana baldin bada,



Azkoitiarra, Balda eraikinerako eskaileretan, 2019an.

"MUSIKAK MODU KOHERENTEAN KONTATZEN LAGUNDU BEHAR DU IRUDIEKIN AZALTZEN DEN ISTORIAO"

"SOINU BANDETAN EGINDA DUDAN IBILBIDEA SENDOTZEN JOAN NAHI DUT"

"MODA ETA LANA EGITEKO MODUA ALDATZEN DOAZ, ETA EGOERARA MOLDATZEN ASMATU NAHI DUT"

oinarrizko eskemarekin egindako animazioa jasotzen dut. Lana irudi errealekin egina bada, berriz, muntaia eginda egoten da. Orduan, nik istorioaren mamia zein den atera behar izaten dut; hori da zatirik zailena. Zeri buruz da istorioa? Zer pertsonaia, toki eta gauza daude istorioan? Galdera horiei erantzunda erabakitzen dut musika zeri eta nola jarri. Ondoren, musika gidoia egiten dut, baina nota bat jarri aurretik, buruan garbi eduki beharra dut lehenagoko guztia. Behin musika gidoia erabakitakoan, musika egiten hasi behar izaten da. Beti irudiak ikusiz eta proiektuko elkarrizketak zein soinuak entzunez joan behar izaten dut musika sortzen. Sortutako lana gero proiektuko soinuak kideei pasatzen diet, eta haiek proiektuari txertatzen diote.

Zein film generotan sentitzen zara erosoan?

Hasieran kostatu egiten zait genero batean murgiltzea. Gero, baina, eroso egiten zait, eta nire genero kutunena bilakatzen da. Filmaren genero aldaketarekin musikaren generoa ere aldatu egiten da. Batzuetan, obra sinfonikoak egiten dira, eta besteetan, musika elektronikoak. Zuritik beltzera aldatzen da askotan.

Egungo osasun egoeran zertan aldatu zaizu lan egiteko modua?

Ez zait gehiegi aldatu. Lehen, proiektuko kideekin aurrez aurre egiten genituen lehen harremanak, baina bideokonferentziak zein telefono deiak ere izaten genituen. Nire *kobazuloan* sartuta egoten nintzen lehen ere. Zentzu horretan inor baino hobeto prestatuta egon gara egungo egoerari aurre egiteko, etxean eta inor gabe lan egitera ohituta geundelako. Halere, errodoje asko bertan behera gelditu dira, eta ondorioz, lan batzuk nahitaez gelditu egin dira. Niri ez dit gehiegi eragin horrek, landu ditudan azken proiektuak animazio proiektuak izan direlako, eta horiek etxetik egiteko aukera izan dudalako.

Lanerako zure "kobazulo" propioa duzula esan duzu.

Musika sortzeko lana nire estudioan egiten dut, baina grabaketak ez, ez baitut horretarako prestatua. Era berean, gainerakoekin bilerak-eta estudioan egiten ditut. Sortze lana, ordea, nire gelatxo horretan egiten dut.

Zein dira soinu bandak sortzeko beharrezko ekipamenduak?

Funtsezkoena ordenagailua da gaur egun. Horrez gain, beharrezkoak dira teklatura eta itxurazko bozgorailuak edukitzea. Behar-behar ez da askoz ere gehiago behar. Proiektuen aurrekontuetan sekulako aldea dago, ordea. Aurrekontuaren

arabera, fundamentuz grabatu ahal izango da lana ala ez. Nire estudioan, esaterako, ezin dut bateria grabatu. Saxofoi edo gitarra doinuak grabatu izan ditut bertan, baina musikari gehiago behar izan dugunean, proiekturako estudioetara jo behar izaten dugu grabaketak egitera.

Inoiz gertatu al zaizu abiatutako proiektu bat albora laga behar izatea?

Zortez, ez zait askotan gertatzen, eta gertatu zaidan gutxitan materiala ez dut berrerabili nahi izan.

Gorde bai, gordetzen dut materiala, baina ez naiz beste proiektuetan berrerabiltzearen aldekoa.

Musika proiektu batentzat sortzen badut, proiektu horretarako sortzen eta erabiltzen dut soilik. Film asko ikusi edota soinu banda asko entzun ditudalako edo, zuzen joan ohi zait lana zortez.

Irudiari baino soinuari garrantzia gutxiago ematen al zaio?

Bai, balio gutxiago du ia esparru guztietan.

Biologikoki ere gizakiak ikusmena entzumenak baino gehiago du garatuta; izan ere, ikusmenak entzumenak baino zati handiagoa du garunean.

Film edo serie bat amaitutakoan, askok ez lukete jakingo musika nolakoa izan den erantzuten.

Musikak eragina du narratiban, eta inkoszienteki irudiei ikuspuntu bat edo beste ematen die.

Ekoiztetxeek ere soinuak baino irudian diru gehiago gastatzen dute.

Liburutegietarako musika ere egindakoa zara. Zer sentitzen du zure musika espero ez duzun lanen batean entzutean?

Oso arraroa da. Liburutegietarako lana behin bakarrik egin dut. Behin, Madrilgo enpresa batek euskal musika egiteko eskatu zidan, pentsa. Enpresa hark nazioarteko katalogo bat zuen, eta ukitu bereziko musika egitea nahi zuen; fadoak eta flamenkoa, adibidez, bazituen enpresak, baina euskal musika nahi zuen nik sortzea. Zazpi abesti egin nizkien, esku soinua, txalaparta, ttunttuna eta alboka nahastuta. Musika hori Eusko Jaurlaritzak erabili izan du turismo kanpainetan, gero. Lurrin baten iragarki batean ere erabiltza daude, baita Lekeitioko dantza taldeak egindako ikus-entzunezko batean ere.

Hainbat sariketarako izendatu izan zaituzte. Espero al zenuen izendapenak eta sariak jasotzea?

Egia esan, espero nuen gutxieneko zerbait lortzea. Soinu bandak sortzen hasi nintzenean, Jerry Goldsmith zenaren omenezko sariak zeuden bakarrik. Nire helburuetako bat sariketa horretan izendapenen bat jasotzea zen, eta zorionez, hiru aldiz egon naiz hautagaien artean. Ezagutzen dut

sariketen kontuak nola funtzionatzen duen, eta noski, poza ematen du izendatuta egotea; halere, dagoeneko ez dut duela urte batzuk bezala hartzen sariketen eta izendapenen kontua. Ikusi dut izendatuta egoteak-eta ez duela horrenbeste esan nahi. Hamaika faktore daude hautagaien artean egoteko, baina ez dut garbi zer nolako eragina duen.

Izendapenak eta sariak ireki al dizute ate berririk?

Ez dut uste. Inork ez dit esan nire lana izendatutakoen zerrendan ikusi duelako deitu didala lanerako. Halere, baliteke noiz edo noiz izendatuta egon naizelako nize izena ezagunagoa egin izana. Iruditzen zait, gainera, sarien mundua nahiko endogamikoa dela. Nork daki nork irabazi duen sariketa bateko musika onenaren saria? Ziurrenik izendatuta zeuden beste musikariek edo hautagaiak bakarrik. Kalean galdetuko bagenu Goya sarietan nork irabazi duen soinu banda onenaren saria, inork ez luke asmatuko.

Musikarion arteko kontua da azken finean.

Zein lanek asetu zaitu gehien?

Orkestra osoarekin eta orfeioarekin grabatu genuelako, *Elkano: lehen mundu bira* filmak asetu nau gehien; fundamentuz egin genuen lana izan zen. Gero, gainera, kontzertua eskaini zuten Donostiako Belodromoan. Joko asko eman zuen proiektuak, eta esango nuke hura izan zela gogobetekoena. Halere, eta zortez, proiektu bakoitzak du grazia bere eskalan. Adibidez, Xanti Rodriguezen *Ospel* film laburrean beste era batera egin genuen lan. Pertsona batek hainbat hari-instrumentu jo zituen eta horiek nahastu behar izan genituen gero orkestra soinua imitatuz. Lan horiek ere bestelako pozak ematen dituzte.

Zein unerekin gozatu duzu gehien zure ibilbidean?

Unerik ederrena *Elkano: lehen mundu bira* filmerako sortutako musikarekin Donostiako Belodromoan eman genuen kontzertuaren eguna izan zen. Egun hura izan da oraingoz nire ibilbideko une gogoangarriena. Lanik potoloena edo samurrena aurretik eginda zegoen, eta gozatzeko unea izan zen egun hura. Ederra izan zen orkestra batek horrenbeste jenderen aurrean nik sortutako musika interpretatzea.

Zeri ematen diozu garrantzia musika sortzerakoan?

Musikak gaitasun narratiboa eduki behar du, eta ondo entzun behar da. Musikak modu koherente batean kontatzen lagundu behar du irudiekin azaltzen den istorioa. Filmeko pertsonaia bati musika bat ematea erabakitzen bada, gero koherentzia bat eman behar zaio filmean zehar.



Joseba Beristain, herriko plazan, aurtan.

Pertsonaia bati filmean gauza garrantzitsuak gertatzen baldin bazaizkio, musikak gauza horiek islatzeko gaitasuna eduki behar du, eta amaierara arteko koherentzia eman behar zaio. Ezin du musika desberdinen arteko nahasketa bat izan.

Zer duzu nahiago, proiektu bakoitzari bere tarte ematea edo bata bestearekin nahastuz garatzea?

Saiatzen naiz proiektu bakoitzari bere tarte eskaintzen. Errealitatean, ordea, ez da horrela izaten. Lan bat amaitu aurretik beste bat sartzen bada, zaila da proiektuak ez nahastea. Lana interesgarria baldin bada, gainera, ez da erraza izaten eskaintzari ezezkoa ematea. Proiektu bat baino gehiagotan batera murgilduta egonda, berriz, iruditzen zait proiektu baterako egindako lana beste proiektuekin nahasteko arriskua dagoela. Halere, jende askok esaten du, sortze proiektu batean murgilduta zaudenean, beste egitasmo batzuk esku artean izatea garrantzitsua dela.

Gaur egun, zer duzu esku artean?

Helduentzako animazio film potolo baterako lan egingo dut ziurrenik, baita Xanti Rodriguezen film labur baterako eta telesail baten atal pilotu baterako ere. Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezko ikasleei soinu banden irakasgaia

irakasten diet. Euskadi Irratian ere kolaboratzen dut, eta hitzaldiak ere eskaini ohi ditut. Soinu banden gaia gizarteratzen saiatzen naiz, beraz. Horrez gain, noiz edo noiz martxan jartzea gustatuko litzaidakeen proiektu propio bat ere badut buruan.

Zein proiektuekin amesten duzu?

Noiz edo noiz zuzenekorako ikus-entzunezkoen ikuskizun bat egitea nahiko nuke; hori darabilkit buruan. Pixkanaka soinu bandetan dudana ibilbidea sendotzen joan nahi dut, presarik gabe, baina gehiegi itxaron gabe. Prest nago etortzen den guztiari heltzeko.

Aurrera begira zein dira zure asmoak?

Soinu bandak egiten jarraitu nahi dut. Nire nahiekin lotutako filmak egin nahi ditut; hori da, batik bat, nire helburua. Horrez gain, moda eta lan egiteko modua aldatzen ari dira, eta egoerara moldatzen asmatu nahi dut. Jarraikortasuna eman nahi diot nire ibilbideari.

Inoiz pentsatu al duzu herrira begira zerbait egitea?

Bai, baina ezin dut ezer aurreratu. Pentsatu izan dut noiz edo noiz, eta zerbait aterako dela uste dut. ■■■

Azukre askeak, finduak...



INTZA SUDUPE

Azukre asko dago gure elikaduran, eta ez dakigu beti identifikatzen. Finduak (oro har azukrea) nutrizio ekarpenik ez du, eta osasunerako kaltegarrienetakoa da. Horren gehiegizko kontsumoa hainbat gaitzekin nahiz gizentasunarekin lotzen da. Azukre askeei buruz ari gara, baina kontsumitzaile gisa inoiz ez dakigu oso ondo, ordea, askea eta sinplea gauza bera diren.

Europako legediaren arabera, azukreak monosakarido edo bi molekula sinple dira, hala nola fruktosa, glukosa, galaktosa, sakarosa, laktosa... Etiketatzeari dagokionez, ez ditu askeak eta intrintsekoak bereizten. Nutrizio balioen taulan denak "azukre" gisa azaltzen dira.

Munduko Osasun Erakundeak Europako legediak bezala azaltzen ditu azukre sinpleak (disakaridoak eta monosakaridoak). Kasu honetan, baina, bi kategoriatan bereizita: alde batetik, askeak (prozesuan gehitzen diren azukre sinpleak). Horiek eguneko 25 gramora mugatu behar ditugu. Eta bestetik, intrintsekoak (esneak, frutak eta barazkiek berez dituzte konposizioan).

Zein da arazoa orduan? Azukre askeen eta intrintsekoen nahasketa duten elikagaiek ezin dugu jakin horietako bakoitzaren zer kantitate duten. Adibidez, frutadun eta azukredun jogurt batean, azukre sinple intrintsekoak dituzten bi osagai daude eta azukre sinple

askea (sakarosa, industriak gehitua) duen bat. Eta guztiak "azukre" gisa azalduko dira nutrizio balioen taulan.

Zaila da bereiztea, baina ez arduratu. Jaki bakoitzaren azukre libre kantitate zehatza jakitea baino funtsezkoagoa da zer azukre saihestu behar ditugun eta horiek non aurkitzen diren ezagutzea.

Eta, zer gertatzen da azukre mota horren ordez "natural" deitutakoak, findu gabekoak – azukre beltza, panela edo kanabera azukrea, siropeak, jarabeak –, erabiltzen ditugunean? Egia da mantenugairen bat dutela, baina haien ehunekoa oso txikia da, eta azukrea da. Beraz, gure organismoan findutakoaren ondorio kaltegarri berberak eragiten ditu.

Eta edulkoratzaileak edo gozagarriak? Egun, industriak gozagarri eta edulkoratzaile artifizial ugari eskaintzen ditu, kaloria gutxi edota batere ez dutenak, eta ahosabaian atseginak. Baina benetan osasuntsuak al dira? Ez. Aurrez aipatutako azukreen portaera funtzional berberak eragiteaz gain, hesteetako floran disfuntzioak eragin ditzakete.

Beraz, zein izango litzateke goxatzeko aukerarik osasuntsuena? Elikagaiei azukrerik eta edulkoratzailearik ez gehitzea da emaitzak emango dizkigun irtenbidea. Aukerarik onena jakiak azukre naturalak (intrintsekoak) dituzten elikagaiekin gozatzea da, hala

nola fruta deshidratatuak, mahaspasak, aran-pasak eta datilak nahiz fruta naturalak, hala nola sagar erreka edo banana. Kanela, koko birrindua edota kakao purua ere beste hiru aukera on dira. Errezeta gaziak goxatzeko, berriz, ahuakatea, erremolatxa, kalabaza edo azenarioa erabili ditzakegu.

"Azukrea zero" helburura iristeko onena kontsumoa pixkanaka gutxitzen joatea da. Horretarako, azken urteetan azukre horien guztien ordezkioak agertu dira; Stevia da bat.

Baina Stevia kontsumitzaileari helarazten zaion mezua ez da egia; Stevia edulkoratzaileen artetik onena dela esatea marketin estrategia bat besterik ez da. *Stevia rebaudiana* tradizionalki Paraguaian landatzen dute, eta landare horretatik ahalmen edulkoratzaile handiko konposatu bat lortzen dute, azukrearen ordezkio gisa erabiltzeko. Baina supermerkatuan saltzen duten edulkoratzailea ez da landarea.

"Naturala" hitza elikagaiei balio erantsia emateko ahaleginean erabiltzen da gaur egun merkatuan. Boladan dago elikagaiek "natural" hitza jarrita sustatzea. Horrek, ordea, ez du inolako zentzurik, konposatu baten propietateak ez baitaude jatorriaren mende. Izan ere, propietateak konposizioaren eta egitura kimikoaren mende daude. ■



Gogoz, lanerako prest

Anaitasuna Mendi Bazkunak segida bermatuta du. Laukote batek hartu du Azkoitiko elkartearen gidaritza. Esku artean proiektu bat dutela ekin diote bideari: mendiarekin lotutako kirol desberdinetako herriko ordezkariekin askotariko ekintzak elkarlanean antolatzea dute xede. Hasi dira bidea egiten.

Testua eta argazkiak: **Nerea Uranga.**

Arre ala so. Aurrera egin edota ibilbidea eten, zalantza horretan egon da Anaitasuna Mendi Bazkunaren etorkizuna azken urtebete inguruan. Herriko mendizale taldearen zuzendaritza batzordeak hamar urte beteta zituen ardurak hartu zituenetik; kideak nekatuta zeuden, eta haien lekukoa hartuko zuen talderik ez zuten aurkitzen. Erabakia hartzeko, joan den otsailaren 24rako ezohiko batzarrera deitu zituzten mendizale elkarteko bazkideak. Beren hautua eginda zuten, zuzendaritza batzordea hartzeko erreleborik ez bazegoen utzi egingo zuten gidaritza.

Arre egin dute, ordea. Herrian mendizaletasuna sustatzeko helburuz jardungo duen gazte talde bat elkartu eta Anaitasuna Mendi Bazkunaren zuzendaritza batzordea hartu du. Laukotea da. Ander Puertas (Azkoitia, 1990), Alaitz Oruesagasti (Azkoitia, 1989), Leire Garate (Azkoitia, 1989) eta Igotz Epelde (Azkoitia, 1989) dira batzordeko kide berriak. Otsaileko ezohiko batzarrera beste aukerarik ez zela aurkeztu azaldu du Oruesagastik: "Anaitasuna MBren zuzendaritza batzordea guk hartu ala taldea desagertu, beste aukerarik ez zaigu gelditu. Otsaileko batzarrera ia bazkiderik ez zen agertu, gutxi batzuk bakarrik. Bestelako proiekturik ere ez zen aurkeztu bileran. Beraz, ardura guk hartzea erabaki genuen. Lehenago, Zazpi Kurutze mendi martxa antolatzen-eta ibilita geundelako, harremana genuen aurreko Anaitasuna MBko zuzendaritzako kideekin, eta haiek proposatu ziguten lekukoa hartzea. 500 bazkideetik gora dituen mendizale elkartea da



Anaitasuna, eta taldea aurrera eramateko proiekturik ez dagoelako bertan behera uztea pena litzateke". Garateren ustez, behin batzordea osatu ez delako, elkartearen hutsean gelditu eta, ondoren "zerotik abiatzea" zailagoa izango zatekeen: "Martxa hartuta eta urteetako ibilbidea duen talde bat bere horretan uztea, ezerezean... Mendizale taldeaz orain inor ez arduratu eta ondoren dena zerotik hastea askoz zailagoa izango litzateke. Herriko mendizale taldea desagertzeak denori ematen zigun pena. Gainera, Zazpi Kurutze mendi martxak azken urteetan indarra hartu du, eta hori antolatzeke erreleboa ere emanda dago". Dena den, ez dute gogoz kontra hartu taldearen gidaritza, hala nabarmendu dute: "Mendia maite dugu, baita mendian ibiltzea ere, eta gogoarekin hartu dugu Anaitasunaren batzordea. Gauzak egiteko gogo handiarekin gaude".

Asmoak esku artean

Azkoitian mendizaletasuna sustatzea du helburu Anaitasuna Mendi Bazkunak, eta hori hala izateko ekintzak antolatzea ere bai. Horretarako prest daudela esan du Puertasek. "Ni herrian mendi lasterketaren bat antolatzeke gogoarekin nago, eta dagoeneko inguruko jendearekin-eta hitz egiten hasita ere bai; mugimendua sortzen hasita gaude", erantsi du.

Zuzenean edota zeharka hainbat taldetan edota ekintzatan parte hartu du Anaitasuna MBk azken urteotan. Esaterako, Kakuteko eguna (maiatzeko lehen igandean) eta Zazpi Kurutze mendi martxa (bi urtetik behin, urte bikoitietan) bere-bereak ditu, hitzordu finkoak. Dena den, mendi martxa antolatzen, batzordeaz gainera, beste hainbat lagun talde ere ibili ohi da. Urtero, azaroan, Mendi Astea ere egin ohi dute. Mangaixue mendi bizikleta lasterketa herrikoiak ere mendi bazkunaren parte hartzea du. Umeentzako mendi irteerak mendizale taldekoek antolatzen zituzten garai batean, baina azken urteetan horren ardura herriko eskoletako guraso elkarrekin da.

Laurek, era batera edo bestera, etxetik jaso dute mendian ibiltzeko zaletasuna. Oinez, antxintxika, bizikletan, eskiekin... mendiari lotutako diziplina desberdinetan dute eskarmentua, eta asmoa dute mendizaletasunarekin uztartutako askotariko ekintzak antolatzeke, "pandemiak eragindako egoerak ahalbidetzen duen bezain pronto". Hori hala izateko, batzordera diziplina bakoitzarekin lotutako taldeak edota jendea batzea nahi dute. Harremanak egiten ere hasi dira zuzendaritzako kideak.

Mendiarekin harremana duten kirol desberdinetan ibiltzen direnekin bildu eta haietako ordezkari banarekin taldea osatzea da esku artean duten egitasmoaren oinarria. "Mendiaren bueltan kirol desberdin ugari egiten dira: oinez ibili, bizikletan, antxintxika, eskiekin, eskaladan... Azkoitian kirol horiek egiteko zaletasun handia dago, eta gero eta jende gehiago dabil mendian. Gu laurok elkartu gara orain batzordea osatzeko, baina talde zabalago bat osatu nahi dugu gauza desberdinak antolatzen hasteko", azaldu du Oruesagastik. Garatek gaineratu duenez, taldean modu horretan antolatuta, "bakoitzak gustukoa duen edota motibatzen duen kirolari lotutako ekintzak antolatzeke eta proposatzeko" aukera izango luke.



Leire Garate, Alaitz Oruesagasti, Ander Puertas eta Igotz Epelde, Anaitasuna Mendi Bazkunako batzordeko kideak.

Garai batean asteburuetan-eta antolatzen zituzten helduentzako mendi irteerak ere ekarri ditu gogora Oruesagastik: "Gaur egun, 60-70 urteren bueltan dituztenek Anaitasunarekin Pirinioetara, Errioxara... egiten zituzten mendi irteeren oroitzapen onak dituzte, giro ederrean ibiltzen zirelako. Hori guztia pixka bat galdu egin da azken urteetan, eta ederra izango litzateke era horretako irteerak berreskuratzea ere".

Proposamenak jasotzeko nahiz ekintzak antolatzeko prest daudenekin elkarlanean jarduteko prest daudela diote argi. "Mendizale elkarteko ateak zabalik ditugu nahi duten guztientzako. Gu gauzak egiteko gogoarekin gaude, baina baita proposamenak jasotzeko ere. Mendiarekin harremana daukan edozer baldin bada aurrera!". Anaitasunakoekin harremanetan jartzeko helbide elektroniko bat ere jarri dute: anaitasunamb@gmail.com.

Ardurak hartu berri, elkarteko kudeaketa lanetan murgilduta daude batzordekideak. "Pandemiak eragindako egoeragatik jende asko dabil mendian, eta mendian federatzeko zer eta nola egin behar den galdezka asko etorri zaizkigu. Beraz, eskaera horiek bideratzen ari gara", azaldu dute. Aurrera begira, berriz, ekintzen antolaketan murgilduta egotea gustatuko litzaieke. Maiatzeko lehen igandean Kakuteko eguna ospatzeko aukera eskainiko balu egoerak, aurreko batzordekoen laguntza izango dute hori prestatzeko. Datorren urtean, berriz, Zazpi Kurutze mendi martxa egitea egokitzen da. "2022a ea urte emankorra izaten den". Hori da Anaitasuna MBren batzorde berriaren desioa. ■■■

**MENDIAREKIN
LOTUTAKO KIROL
DESBERDINETAKO
EKINTZAK ANTOLATU
NAHI DITUZTE**

**ANAITASUNA MB-KO
BATZORDEAK ATEAK
ZABALIK DITU
PROPOSAMENAK
JASOTZEKO**



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com



Floreaa
SALESTAR IKASTETXEA
FAMILIAK ETA IKASTETXEA,
BAT EGINDA HEZTEN
KONFIANTZAREN PEDAGOGIA
Zatuz, ezagutu goitxozu
Basleak korrontas izatearen
giltza konfiantza dagoelako

Leheniz z/g-AZKOITIA,
943-85 30 43 • floreaa@floreaa.eus
www.floreaa.eus

ZERBER

BURDINDEGIA

BEHAR DUTUNERAKO ALOR GUZTETAKO GAIK AURKUTU DITUZU
GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZTATEA, MARGOLAFITZA, ETXEA,
ITURGINTZA, BRIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA,
TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, BARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"

NAGUSIA: 39 - 20720 AZKOITIA - 838 30 01 25
www.femeteriazerber.com



OGIARTEKOKI
SANDWICHAK ETA HAMBURGESAK
ENTZALAK
PASTELAK
PASTEL KONJUNTATUAK
WASCH
OGIARTETOKI
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOMU ETA ANGI EKOPI
PAREGADEAK
LAHURDITETAN 60.000 ARTETAREN

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75



ARTISAU PIZZAK
ENTZALAK
PASTELAK
PASTEL KONJUNTATUAK
WASCH
OGIARTETOKI
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOMU ETA ANGI EKOPI
PAREGADEAK
LAHURDITETAN 60.000 ARTETAREN

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 18

Non dago Zakelmari?



Martxoko Maxixatzen aldizkarian Zakelmari non ezkututa zegoen asmatu behar zen:

37. orrialdean zegoen ezkutututa.

Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa

egin ondoren, Mamen Bikendik irabazi du Ogi

Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta.

Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko

txekea zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari

aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna

apirilaren 21a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira

edo maxixatzen@maxixatzen.eus helbide

elektronikora.



ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolata txurroekin eta terraza zabala.

ESKANTZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behe • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54

FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO





Ortozik Podologia

IONE AGIRREGOMEZKORTA

2001 - 2021

20 urte



Eskerrik asko **20 urte** hauetan emandako konfiantzagatik



"Parrokia kristau elkarte bat da, eta hori bizirik egon behar da"

FELIX AZURMENDI AZKOITIKO ERRETOREA

Urola bailaran hasi zuen apaiz ibilbidea eta Urola bailaran ari da betetzen azken urteak ere. Tartean, berezko joera beste bat izan arren, ardura asko eta pisuzkoak izan ditu Gipuzkoako Elizbarrutian. Elizaren aldaketaren aldeko ildokoa, erakundean zein gizartean ikusten jarraitzen du aldaketaren beharra.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Mailo Oiarzabal eta utzitakoak**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**.

Ni apaiz egiten naiz Elizaren eraberrikuntzaren zerbitzurako". Erantzun hori eman zuen Felix Azurmendik (Urretxu, 1950) apaiz egiteko prestatzen ari zela apaiztegian bere arrazoiengatik galdetu ziotenean. Helburu horrekin apaiztu zen 1976an. 45 urte joan dira harrezkero, eta Elizan orain ere zer aldatua badela uste du 2012tik Azkoitiko parroko denak, baina baita urte horietan aldaketak gauzatu direla ere: "Kanpotik begiratzen bada, iruditu leike dena berdin dagoela, baina ez horixe, gauza asko aldatu dira. Eta gainera, nahi izan da aldaketa hori". 75 urterekin jubilatzen dira apaizak eta 70 ditu berak. "Teorian", bost urte gelditzen zaizkio erretiroa hartzeko, baina ezin du ziurtatu bere apaiz ibilbidea Azkoitian bukatuko al duen.

"Lehen ere, ez naiz inoiz joan nik nahi izan ditudan tokietara", dio.

9 urte zituela, Urretxu utzi eta Donostiara joan zen Azurmendi familiarekin, "aitaren lanagatik". Handik urte gutxira sartu zen Gipuzkoako hiriburuko seminarioan. Han bizi zela osatu zituen Batxilergoa eta unibertsitate aurreko ikasketak Peñaflorida institutuan. Ikasketa horiek bukatuta iritsi zitzaion erabakia hartzeko unea. "Historia egin ala ez zalantzan egon nintzen; gustatzen zitzaidan historia, filosofia ere bai. Gure ikasturtean ikasle asko ginen, eta gehienek utzi egin zuten apaiztegia unibertsitate aurreko ikasketak bukatu eta gero. 50en bat izango ginen, eta oso gutxi gelditu ginen, lau edo bost. Nik pentsatu nuen: beno, historiagileak egongo dira Gipuzkoan, Euskal Herrian, baina apaizak gutxi, eta gutxiago egongo dira. Bide hori hartzea





Felix Azurmendi, etxeko balkoian. 2019ko Erramu Eguneko ospakizunean, herriko plazan.



erabaki nuen eta seminarioan gelditu nintzen. Baina pentsatu eta gero, ez arinkeriaz”. Horrela, Historia ez, baina Teologia ikasi zuen, apaiztegia bertan.

Kontenplaziorik gabe

Urola bailaran ari da betetzen bere apaiz ibilbidearen azken urteak eta Urola bailaran egin zituen ibilbide horren lehen urratsak ere. 25 urterekin apaiztu zen Azurmendi eta handik gutxira iritsi zen Urrestillara, Jose Ramon Treviñorekin batera: “Nik Matxinbenta eta Beizama nituen ardura; Nuarben ere aritu nintzen, une batean. Jose Ramon Treviñok, berriz, Aratzerreka, eta Urrestilla, koadjutore, don Angelekin [Amenabar]”.

Pasaiaiko Trintxerpe izan zuen hurrengo geltokia. Ondoren, Jose Maria Setienek eskutik aurrena eta Juan Maria Uriarterekin gero, parrokia giroetatik haratago zeuden ardurak kateatzen joan zen Azurmendi Donostiako Elizbarrutian. Setienekin, eta Setienek eskatuta, Gazte Pastoraltzaren buru izan zen lehendabizi hainbat urtez, 1980ko hamarkadan; 1987tik 1994ra, berriz, Gizakia Helburu proiektuaren ardura hartu zuen; eta Caritasen bete zituen beste bizpahiru urte. 2000. urtean, Uriartek hartu zuen Setienek lekukoa Donostiako Gotzaindegian, eta haren urteetan, 2009ra arte, Elizbarrutiaren Bikario Nagusi izan zen Azurmendi.

Azurmendiren ibilbidearen kontakizuna bere ahotik entzunda, ondoriozta daiteke gogoz kontra ez agian, baina bai ezustean, espero ez zituela, iritsi zitzaizkiola eta onartu zituela aipatutako ardura gehientsuenak. “Beti eduki izan dut nire bizitzan kontenplaziorako joera”, dio, izan ere, eta kontenplaziorako aukeratik urrun gelditzen ziren Elizaren gizarte jarduerarekin estu lotutako ardura horiek. Berezko joeraren eta egokitutako arduren arteko zubia Olivako monastegian (Zarrakaztelu, Nafarroa) aurkitu izan du Azurmendik; zistertarren

Felix Azurmendi

- **Jaiotze data:** 1950eko uztailaren 16a, Karmengo Amaren eguna. Felix Carmelo naiz ni.
- **Ikasketak:** Teologia eta Espiritualtasun lizentziatura.
- **Lanbidea:** Apaiza.
- **Apaiza ez banintz...** Gaztetan, historiagile erantzungo nuke, ikerketari lotuta. Urteak aurrera joan ahala, berriz, baserritar. Asko gustatzen zaizkit animaliak eta.
- **Lanak tartea uzten didanean...** Bakardade zalea naiz, neuretzat denbora hartu ahal dudanean otoitza, gogoetarako eta irakurtzeko erabiltzea gustatzen zait.



Elizkizun batean. Itsas Salbamendu Humanitarioari babesa agertu zion Azkoitiko Parrokiak, Pasaian (Gipuzkoa).

ordenako monastegia da, kontenplaziozko bizitza egiten dute hango klausurako fraideek. Gazte Pastoralta utzi ondoren egin zuen han lehen egonaldi luzea, eta Gizakia Helburuko etapa amaitutakoan beste bat. “Hura zen arnasa berritzeko nire tokia. Urte neketsuak izan ziren, higadura handikoak”, azaldu du.


Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzain izendatu zutenean, Azurmendi, bikariotzan kide izan zuen Patxi Aizpitarterekin batera, Erromara joan zen. Han bi urtez ikasketei emanda ibili ondoren itzuli zen elizbarrutira, eta orduan eman zioten Azkoitiko Parrokiaren ardura.

“Krisiaren semea”

Berak “kristau elkarte bizi” deritzonak dira, Azurmendiren aburuz, tokian-tokian Elizari eusten diotenak, eta alde horretatik osasuntsu ikusten du Azkoitiko Parrokia. “Ni Azkoitian ondo sentitu naiz, ondo hartua, eta ondo txertatu naiz, ez dut aparteko zailtasunik sumatu. Baina, hori bai, gehiago inporta zaizkit moduak, jendea egotea. Parrokia ez naiz ni, Parrokia talde bat da, kristau elkarte bat, eta elkarte hori bizirik egon behar da. Bestela, zer egiten dut nik hemen? Orain ere bizirik dago kristau elkarte Azkoitian. Batzutan, kanpotik ez da ezagutzen barruan dagoen bizitza”. Laikoak eta sekularrak dira kristau elkarte horren muina eta horien lana eta konpromisoa goraiatu ditu parrokoak; bere lana horri “hauspoa” ematea

dela dio. Kristau elkarte osatzen duen “erdiko gune” hori, talde hori, “oso finkoa” dela dio parrokoak, “eta hor bai dagoela jarrera eta erabaki pertsonal bat”, beren burua kristau elkartearen parte sentitzen duten baina Elizarekiko harremana tradizioetara eta une jakinetara mugatzen dutenekin nolabaiteko alderaketa eginez. “Azkoitian, tradizioak oraindik pisu gehiago du beste herri batzuetan baino”, uste du. Tradizioei eustearen kontrakoa ez da, baina “tradizioak eguneratu” egin behar direla uste du Azurmendik.

Elizaren krisia, edo Elizak erakunde gisa gizartean galdutako pisuaren krisia, aspalditik datorrela nabarmendu du: “Ni krisiaren semea naiz, e? Gure garaian dagoeneko hasita zegoen krisi hau. Aldaketaren gandor horretan bizi izan gara beti; ohituta gaude erabat, ni behintzat bai, aldaketaren zurrumbilo horretan bizitzen”. Aldaketaren eta eraberritzearen aldekoak, bere belaunaldiko apaizak Elizarekin “oso kritikoak” izan direla dio. Vatikanoko Kontzilioaren ildoko eta “aldaketaren aldeko” gotzainen ondotik –Setien eta Uriarte–, Munillaren aroan bizi da Gipuzkoako Elizbarrutia, “olatu neokontserbadore” baten pean, eta aldaketa hori “ondo ez” daramala aitortu du beste behin Azkoitiko parrokoak. Elizan ez ezik, gizartean ere aldaketa sakonen beharra ikusten du, eta “espíritu kritikoa” aldarrikatzen du, bai Elizan, bai gizartean. ■



KROKOILOA



TXORILA




AZERINARIOA



ARDIGREA



TXERRIKORRA



OSTRUKATUA

Espezie Festa

Ez dakigu zientzialari pitzatua den ala gezurti ikaragarria, baina zoro honek espezie berriak sortu omen ditu. Nola? Abereak abereekin nahasiz eta inork ulertu ez dituen formula matematiko genetiko labirintikoen bidez, aizue. Batere kolorenik gabek atera zaizkia, ordea. Margotu itzazu zuk.



Itzalak

Lotu itzal bakoitzari bere izena.

Sudokua



Zein ederra den udaberria!

1 zenbakiz seinatu dugun hori landarearen kimua da eta albokoa,
2 zenbakiz seinatu duguna, gauza bera, baina txikiagoa. Bete itzazu lauki zuriak KIMUTXOA hitza osatzen duten hizkiez (K, I, M, U, T, X, O eta A). Letra bakoitzak behin agertu behar du letra, zutabe eta arrea bakoitzeko.



ZENBAT TXORI IKUSTEN DITUZU IRUDIAN?

Engainariak



Hamarrekoa

Aurkitu zientzialariaren eta bere ispiluko irudiaren artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Lau zatietatik bi irudi handitik hartuta daude eta beste biak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.

Ordenu itzazu botak handienetik (1) txiki-enera (6) eta ondoren

Handitik txiki-enera

- margotu. 1: urdin ilunez eta horiz.
2: laranja eta urdin argiz.
3: Berdez eta arrosa.
4: morez eta grisez.
5: marroiez.
6: gorri.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Paperak altxor

TESTUA ETA ARGAZKIAK: AITZIBER
ARZALLUS

Azkoitiko Udal Artxiboa udaletxeko hirugarren solairuan dago, eskailerak igo eta eskuinera. Lehen kolpean, gela handi batera sartuko da herritarra. Berri itxura du gelak. Eskuinaldera, zenbakiz bereizitako kaxa pila bat apalategi mugikorretan txukun antolatuta. Erdia inguru beteta dago; gainontzekoa, hutsa. Ezkerraldera, ate bat, bulego baterako sarbidea. Han, Imanol Mujika, (Azpeitia, 1975) artxibozaina. Hamabi urte daramatza lan horretan.

Udal batentzat bere artxiboak zer garrantzi daukan galdetuta, ez du dudarik egin Mujikak: "Administrazio publikoan artxiboa oinarritzko zerbitzua da, erakundeek beren jarduna ondo justifikatuta eduki behar dutelako, eta hori dokumentuekin egiten delako". Hain zuzen ere, dokumentu horiek dira artxiboan jasotzen dituztenak.

Baina zer motatako dokumentuak izaten dira horiek? "Artxiboetan gordetzen dira dagokion erakundeak bere zereginetan sortzen eta jasotzen dituen dokumentuak; kasu honetan, batez ere, herritarren, enpresen, udalaren edo beste erakunde batzuen ekimenez egindako espedienteak". Espediente horiek eskaera batekin hasi ohi dira, eta

ondoren, txosten, irizpen, ebazpen eta abarrekin osatu. Era askotakoak izan daitezkeela azaldu du Mujikak. "Hirigintza departamenduak, esaterako, obra publikoekin eta partikularrekin lotura duten espedienteak sor ditzake. Demagun herritar batek etxean obra bat egin nahi duela. Udalera proiektu batekin etorriko da eta eskaera bat egin beharko du lehenik. Ondoren, hirigintzako teknikari batek proiektu hori balioetsiko du eta haren gainean txosten bat egingo du. Herritarrari obra hori egiteko baimena emango dio ala ez, eta obra gauzatzen duen kasuan, fakturak eta obra amaierako dokumentu bat aurkeztu beharko ditu. Prozesu horretan sortu eta pilatu dituzten paper horiekin guztiekin espedientea osatuko dute, eta prozesua bukatutzat ematen dutenean, espedientea itxitzat joko dute. Orduan, artxibatze moduan geldituko da".

Hirigintzako espediente ia guztiek artxiboan bukatzen dutela ziurtatu du Mujikak, eta hain zuzen ere, horiek direla gero gehien kontsultatzen direnak,

1319KOA DA UDAL ARTXIBOAN GORDETZEN DUTEN DOKUMENTURIK ZAHARRENA

nola udalaren barneko jardunean hala herritarrek edo gremioek eskatuta.

"Kontsultarako arrazoiak askotarikoak izan daitezke: batek etxean obrak egin nahi dituela; besteak eraikitako metroen kopurua ziurtatzeko etxeko planoak ikusi nahi dituela...". Hirigintza departamenduarekin batera, idazkaritza eta kontu hartzailetza departamenduak dira artxibatze espediente gehien sortzen dituztenak.

Espediente horiek bost urtez departamenduetako bulegoetan gordetzen dituzte, eta epe hori pasatutakoan, Mujikari ematen dizkiote, artxiboan gordetzeko. Artxibozainaren lana izango da espediente bakoitzeko dokumentuak kronologikoki eta txukun sailkatzea, karpetatxoaren azalean barruan dagoenari buruzko deskribapena idaztea, karpeta bakoitzari zenbaki bat esleitzea eta dagokion kaxan sartzea, eta horretarako prestatutako sistema informatikoan zer eta non gorde duen garbi adierazita jartzea, behar duenean erraz topatu ahal izateko.

Zaharrak eta berriak

Azkoitiko Udal Artxiboak bi zati ditu: bata, artxibo administratiboa edo garaikidea deritzona; bestea, artxibo historikoa. "Nolabait azaltzeko: artxiboan dagoen dokumentu batek 50 urte betetzen ditutenean, historiko izaera



irabazten du. Hortaz, orain garaikidea dena noiz edo noiz historiko izatera pasatuko da. Denbora hori igaro arte ez dago esaterik dokumentu bat historikoa dela, baina egia da historiko izateko kontuan hartzen diren irizpideak ezagututa, gutxi gorabehera aurreratu daitekeela dokumentu bat historiko izatera iritsiko den ala ez". Horrek ez du esan nahi egun artxibo garaikidean gordeta dagoen guzti-guztia egunen batean artxibo historikoaren parte izango denik. Zenbait dokumentuk, denborarekin, balioa galtzen dute, eta horiek, irizpide eta protokolo zorrotzak jarraituta, deuseztu egiten dituzte. "Gaur egun, gordetzeak adinako garrantzia du deusezteak", Mujikaren arabera. Horretarako irizpideak Eusko Jaurlaritzako Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak zehazten ditu.

1319koa da Azkoitiko Udal Artxiboan gordetzen duten dokumenturik zaharrena, Azkoitiko herria fundatu aurrekoa. "Bertan, Azkoitiko kapareak absolbitzen ditu Baldako monasterioa erre eta bertako jauna eta semea hiltzeagatik". Hurrengo zaharrena, berriz, Azkoitiaren sorrerako Hiri Gutuna da, 1324koa. Artxiboan gordeta dituzten dokumentuen %80, baina, 1975etik honakoa dela dio Mujikak, "garai hartan hasi zelako dokumentazioa esponenzialki hazten".

Artxibo historikoak ere badu zati berezitu bat: XIX. mendera artekoa, *Zabala fondo*a deitzen zaiona. Antonio Maria Zabala azkoitiarra izan zen hura antolatu zuena, eta horregatik

jarri zioten izen hori. "Aurretik ere norbaitek antolatuko zuen, baina Zabalak, 1773an, artxiboaren inentarioa egin zuen: paper guztiak sailkatu zituen eta deskribapenak erantsi zizkien". Parte horrek orduko antolaketaren arabera ordenatuta jarraitzen du egun, eta dokumentu guztiak digitalizatzuta daude.

Gaur egun ere, urtero diru partidatxo bat jarrita, eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak baliatuta, dokumentuak digitalizatzen ari dira. XIX. mendera arteko gehiena digitalizatuta dagoenez, Mujikak, batez ere, XX. mendearen hasierako dokumentuetan jarri du arreta. "Saiatzen ari naizena da nire ustez herriarentzat garrantzitsuak izan ziren gertaera haien inguruko dokumentuak digitalizatzen". Adibide gisa, San Martin auzoaren eraikuntzari buruzko dokumentuak aipatu ditu, baita Josu Arroitauregi argazkilariaren bilduma ere.

Kontsulta ohikoenak

Azkoitiko Udalak artxibo "aberatsa eta ondo zaindutakoa" duela iritzi dio Mujikak, "azken hamarkadetan behintzat ez delako ezbeharrik izan". Han gordeta dagoen eduki ia guztia publikoa da; herritar guztien eskura dago beraz, beti ere norbanakoen datuen babeserako araudiak ezartzen dituen mugen barruan. "Horrek esan nahi du herritar batek ezin duela etorri bere bizilagunak etxea zenbat ordaindu duen jakitera, horrek legedia hautsiko lukeelako; baina hemen gordeta dauden dokumentu gehien-gehienak edonork kontsulta ditzake". Mujikak zehaztu du dokumentuak datuen babeserako legediaren

eraginpetik kanpo gelditzen direla dokumentuak 75 urte betetzen dituen edo datu horien jabea hil zela 25 urte betetzen direnean; "epe horiek betetakoan, libre eta publiko bihurtzen dira dokumentuak".

Udal artxiboan kontsultaren bat egin nahi duten herritarrek nahikoa dute eskaera orri bat betetzea zer behar duten azalduz. Hartara, herritarra artxibora iristerako lanak aurreratuta izango ditu Mujikak. Hori bai, dokumentu historikoen kasuan, lehenik www.artxibo.euskadi.eus webgunean kontsulta egitea gomendatu du, Azkoitiko artxiboan jasota dauden dokumentu asko eta asko atari horretan modu digitalean bilduta daudelako. Atari horretan bertan, XIX. mende bukaera arteko Elizaren dokumentuak ere eskura dituzte herritarrek. "Adibidez, bataioak, ezkontzak eta heriotzak Elizaren artxiboan egoten dira, eta zuhaitz genealogikoak osatu nahian dabiltzanentzat oso baliagarria da artxibo hori, lehen denak Elizatik pasatzen zirelako". 1900dik gaur arteko genealogia ikertzeko, berriz, eliz barrutietako artxiboetara edota epaitegietako erregistroetara jo behar dela zehaztu du.

Hain zuzen ere, hirigintza arlokoekin batera, genealogiari lotutakoak baitira artxibozainari iristen zaizkion kontsultarik ohikoenak. Jende askok jotzen du kontsulta genealogikoak egitera: "Bi motatako jendea etorri ohi da kontsulta genealogikoekin: kanpoan bizi eta Azkoitiarekin nolabaiteko harremana dutenak edo zahartzen ari direnak; beren aurrekoen arrastoa ateratzeko behar hori sentitzen dutenak guztiak ere". Eta gauza bitxiak gertatu izan zaizkiola esan du.



Imanol Mujika Azkoitiko Udal Artxiboko arduradun teknikaria.



Dokumentu historiko bat, zigilu eta guzti.



San Martingo etxebizitzaren planoak, blueprint teknikarekin egina.



San Martingo etxeak eraikitzeke adreiluen makinaren argazkia.



1921-24 arteko udaleko akta liburua.

"Orain dela urte batzuk, Argentinako emakume bat nirekin harremanetan jarri zen bere arbasoei buruzko informazioa eskatzeko, eta pare bat urtean hainbat kontsulta egin zizkidan. Aita finlandiarra zuen, eta ama, Amutxastegi abizenduna, Azkoititik joandako baten ondorengoa. Halako batean, hemen azaldu zitzaidan bere zuhaitz genealogikoari buruzko liburu bat eskuetan zuela. Harrituta gelditu nintzen". Gogoan du Canadian bizi zen arkitekto italiar bat ere. "Hura Izeta abizenari tiraka iritsi zen informazio eske, eta hark ere liburu batean argitaratu zuen bildutako informazioa". Bulegoan ditu bi liburuak. Hegoamerikatik eta, batez ere, Argentinatik eta Uruguaitik era horretako kontsulta ugari egiten dizkiotela esan du, eta kanpotarrak ez ezik, bertakoak ere dezente joaten zaizkiola arbasoen informazio bila.

Horiez gain, ikasleen eskariak ere jasotzen ditu; gradu edo master amaierako lanetarako informazio bila jo ohi dutenenak, esaterako. "Adibidez: batek,

abarketagileen inguruan egin zuen lan bat; beste batek, San Martingo etxe merkeen inguruan.... Azkoitiko Udal Artxibotik ateratako dokumentazioarekin lan oso interesgarriak egin dituzte zenbaitzuk, eta lan horiek ere gordeta ditugu".

Dokumentu kuttunak

Udal artxiboan dokumentu bitxi eta interesgarri ugari dago, baina beretzat kuttunenak zein diren galdetuta, Mujikak zuzenean jo du San Martin auzoaren eraikuntzari buruzko paperak jasota dauden kaxetako batera. Ez omen du kaxa guztien edukia zehatz-mehatz ezagutzen, "baina hauek badakit non dauden, hauei maitasun berezia diet", aitortu du. Kaxatik paperak atera eta honela dio aurrenekoaren izenburuak:

"MAITASUN BEREZIA" DIE MUJIKAK SAN MARTINGO ETXE MERKEEI BURUZKO DOKUMENTUEI

Poyectos tecnicos de infraestructura edificio casa baratas. Euskaraz, etxe merkeen eraikinaren azpiegituren proiektu teknikoa. Artxiboko dokumentuak irakurrita ikasi du haiei buruz dakiena, eta ez da gutxi. Lehen datua: aurki beteko dituzte 100 urte, 1925ean ekin baitzioten proiektuari. Hiruzpalau urte behar izan zituzten 99 etxebizitza eraikitzeke; San Martin auzoa itxuratzeke. 1960an, beste etxebizitza bat eraiki zuten, eta egun, ehun etxebizitza ditu auzoak.

Etxebizitza horiek horren berezi zergatik diren galdetuta, orduko testuingurua azaldu du Mujikak. "Industrializazio garaia zen eta jende asko joan zen hiriguneetara bizitzera. Lan eta bizi baldintzak oso gogorak eta txarrak ziren". Urte batzuk lehenago Azkoitian bertan izandako lan gatazkak ekarri ditu gogora. "1917tik 1923ra bitartean sekulako grebak egin zituzten abarketa sektoreko langileek". San Martingo etxebizitzak bake soziala bermatzeko xedearekin ere eraiki zituztela adierazi du. "Etxe merkeen eredia Europako



1935eko errolda liburua.



Imanol Mujika bere bulegoan.

beste herrialde batzuetatik iritsi zen hona, eta helburua zen nolabait ere horren lan baldintza gogorretan eta bizi baldintza txarretan bizi ziren langile haiei bizileku egonkor eta duina eskaintzea".

Azkoitiko kasua nahiko berezia izan zela esan du, udala izan zelako etxebizitzak eraikitzea sustatu zuena; udalaren aldetik "proiektu eredugarria" izan zela dio. "Udala izan zen sustatzailea, baina gero herritarrak izan ziren zozketa bidez esleitutako etxe haiek eraiki zituztenak. Etxebizitza bakoitzak 10.000 pezeta inguru balio zituen, eta erosi nahi zutenek 1.500 pezetako sarrera ordaindu behar zuten. Ordaintzeko bi aukera zituzten: bata zen eskudirutan pagatzea, ezinezkoa gehienentzat; eta bestea zen etxebizitzak egiten 2.000 lanordu sartzea. Gehienek bigarren aukera hobetsi zuten eta beren bizilekua izango zena eraiki zuten. Alde horretatik ere badute zera berezi hori". Horrela eraiki zuten San Martin auzoa.

Arkitektonikoki ere oso proiektu interesgarria izan zela dio Mujikak. Tomas Bilbao arkitekto bilbotarrak diseinatu zuen.

"Gizon kurioa zen. ANV Accion Nacionalista Vasca alderdiaren sortzaileetakoa, errepublikako azken urteetan ministro izan zen, sailik gabeko ministroa; eta gero, Mexikora erbesteratu behar izan zuen". Hark diseinatu zuen Azkoitiko Berdura Plaza ere, San Martingo etxebizitzaren garaian. Azkoitikoez gain, beste eraikin asko diseinatu zituen Bizkaiko gunen industrializatuenera zein Bilboko erdigunean. Dena dela, "berak aitortu omen zuen San Martingo etxebizitzak bere lanik maiteenetakoa zirela".

Bi kaxatan gordeta daude San Martingo etxebizitza merkei buruzko dokumentuak: blueprint teknikaz eskuz egindako planoak, udalari proiektuaren xehetasunak azalduz bidalitako gutunak, adreiluak egiteko erabilitako makinaren argazkiak...

Erronkak

Paperaren erabilera murrizten eta euskarri elektronikoena

zabaltzen ari den garaioan, bada sailhestu ezinezko galdera bat: zer etorkizun dute artxiboak?

Oraindik ere gehiena paperean egiten den arren, joera aldaketa gertatzen ari dela dio Mujikak, eta erakunde publikoentzat zein artxibozainentzat hori izango dela datozen urteetako erronka. Beste erronkatzat, artxiboaren zabalkundea aipatu du, "dokumentuak gordetzea bezain garrantzitsua baita ondare hori herriratzea". Horretarako, argitalpenak kaleratzea edo erakusketak egitea bide egokiak izan daitezkeela uste du Mujikak, "eta saiatzen gara, baina ditugun baliabideak ere mugatuak dira". Duela urte eta erdi Arroita jauregi argazkilariaren bildumako hainbat argazkirekin egin zuten erakusketa jarri du adibidetzat. "Haren bilduma digitalizatzen ari ginenean ikusi genuen aukera zegoela herritarrentzat interesgarria izan zitekeen erakusketa muntatzeko". Halaxe egin zuten, eta sekulako arrakasta izan zuen gainera. Gustatuko litzaioke horrelako gehiago egitea. ■■■



Herriko pilotalekuak

Artilez bildu, larruz estali eta hariz jositako pilotaren herria da Azkoitia. Pilotaren sehaska deitu izan zaio urte luzez. Goi mailako pilotarien eta txapeldun handien sorteria baita, eta ez da harritzekoa, Azkoitian pilotarako hamaika leku baitago, nola mendi auzoetan nola herrigunean. Herriarteko pilota txapelketan ere oraindik ez du parekorik. Hamasei aldiz irabazi du Azkoitiak Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa.

Argazkiak eta testuak: **Andoni Elduaen Soraluze.**



MADARIAGA

Madariaga auzoan bi pilotaleku daude: handia eta txikia. Pilotaleku handia aire zabaleko eskuin hormako frontoia da. Pilotaleku horren beste aldean gelditzen da jolaserako aproposa den ezker hormako pilotaleku txikia. Bigarren frontoi hori estalitakoa da.

KONTZEJUPEA

Kontzejupeak azkoitiar ororen bihotzean du lekua. Eskuin hormako pilotalekua, bere arku, zulo eta ateez berezi egiten dutena. XIX. mendean, jende gazte asko hasi zen udaletxe azpiko arkupeetan pilotan jokatzeko, eta hori ikusita, 1894. urtean arkupeetako hormak eraberritzeko agindua eman zuen Jose Manuel Arozena orduko alkateak. Harrezkero, asko eta asko izan dira Kontzejupen pilotan jokatuak. Nork ez du jokatu sekula Kontzejupen pilotan?



URRATEGI

Urrategi auzoan ermitaren eta auzoko elkarte gastronomikoaren artean dago frontoia. Eskuin hormako pilotaleku zuria da Urrategikoa, baina ezker aldeko petrilak eta egurrezko zutoinek jolaserako pilotaleku aproposa sortzen dute.



GOIKO LOSA

1770ean egin zuten Goiko Losako aire zabaleko pilotalekua, eta 1912an eraberritu; Eusebio Madariagak egin zuen eraberritzeko proiektua. 1923an, berriz, pilota elkarteak sortu zuten Azkoitian, eta talde hark Goiko Losa pilotalekua alokatu zion udalari. Hala, elkarteak igande eta jaiegunetan pilota partidak antolatzen zituen bertan, baita herriko festa egunetan ere. Egun, frontisaren eskuin aldean margotuta dagoen Mariano Juaristi *Atano III.a* pilotari zenaren irudiak egiten du berezi Goiko Losa.



GUREA PILOTALEKUA

Baztarrika aldean 1932. urtean eraiki zuten pilotalekua Etxaniz anaiek bultzatuta; laster beteko ditu 90 urte, beraz. 38,5 metro luze da Gurea frontoia, eta garai batean 1.300 ikusle sartzen baziren ere, eraberritze lanen ondoren, hirugarren solairua kendu zioten, eta gaur egun 888 pertsona sartzen dira pilotalekuan. Pilotaz gain, herri kirolak, dantzaldiak eta bestelako jaialdiak ere egin ohi dituzte bertan.

XABIER MUNIBE IKASTOLA

Xabier Munibe Ikastolak pilotaleku luzea bezain zabala du. Ikastolako iparraldeko fatxadaren azpian dago kokatuta. Duela urte batzuk, frontoian bertan egiten zituzten ikasturte amaierako jaialdiak, eta egun hainbat kirol egiteko aukera ematen du.

**IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETAKO FRONTOIA**

Estalpea duen frontoia da Izarraitz Lanbide Heziketakoa. Ezker hormako pilotaleku motza eta estua da. Kantxan gertatzen ari dena ikusteko, gainera, ikusleak esertzeko bi lerro ditu pilotalekuak.

FLOREAGA IKASTETXEA

Floreaga ikastetxeak bere pilotaleku propioa du. Ikastetxearen atariaren alboan dago frontoia, eta On Bosco izenez da ezaguna. 2009. urtearen amaiera eta 2010. urtearen hasiera artean eraberritu zuten pilotalekua, eta urte hartako urtarilaren 31n inauguratu zuten.



AIZPURUTXO

Aizpurutxon auzoko ermitaren aurrean edo ibaiaren alboan dago auzoko pilotalekua. Ezker hormako pilotaleku estua eta txikia da Aizpurutxokoa, eta noski, estalita dago. Garai bateko pilotalekuen gisan, kolore zuriz dago margotuta.



MARTIRIETA

Martirieta auzoko pilotalekua eskuin hormako frontoi txikia da. Kontzejupearekin antzekotasun gehien duen pilotalekua da Martirietakoa. Eskuin horman leihoak ditu eta ezker aldean pilota desbideratu dezaketen egurrezko zutoinak nahiz horma. Tentu handia eduki behar da, gainera, sabaiairekin.



ELOSUA

Elosuako pilotalekua auzoko plazan bertan dago. Ezker hormako estalitako pilotaleku zuria da. Eskumenez, Bergarako Udalarena da Elosuako pilotalekua.



OTEIZA FRONTOIAK

2006an inauguratu zituzten Oteiza frontoiak. Jorge Oteizak bere ideiak eta Azkoitiko pilotarako tradizioa bateratzeko asmoz sortu zuen lana. Oteizak berak pentsatu zuen, eta Carlos Ceballos arkitektoak zein Antton Mendizabal eskultoreak diseinatu zuten. Euskal Herriko zazpi lurraldeen sinboloak diren sei pilotaleku (Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Bizkaia, Nafarroa eta Araba) biltzen dituzte Oteizaren frontoiek.

ASTARBE

Astarbe auzoko pilotalekua aire zabaleko pilotalekua da. Oso egoera onean dago urdin kolorea eman zioten frontoia; izan ere, udalak 2017. urtean eraberritu zuen. ■■■



Sorpresak eta ziurtasun lausoak



IRENE ELORZA GEREÑO

Lagunak gonbitea egin zidan: "Martxoaren 13an nirekin etorriko al zinateke lagun batek Arantzazun eman behar duen kontzertura?". Artean, mugikortasuna oso mugatua geneukan eta ezin zen Azkoititik Oñatiraino joan, baina baietz esan nion. Arantzazura joatea beti da plazera. Baina inoiz egin ez dudana egitea erabaki nuen, eta ez nion galdetu nolako kontzertua ikusiko genuen. Interneten ere ez nuen begiratu. Sorpresa izatea nahi nuen.


Eguna gerturatu zen, eta askatasun pixka bat berreskuratu genuen. Larunbat arratsalderako plan ederra genuen. Autoan gindoazela laguna misterioa aletzen hasi zen. Asier Li izeneko musikariaren sormen lana entzutera gindoazen. "*Horrela bizitzeko* bildumaren laugarren alea da gaur aurkeztuko duten *Euri lauso baten tanta finen*. Abesbatza eta organorako konposizioz osatuta dago hori". "Organo" hitza entzun nuenean apur bat ikaratu egin nintzen, eta aurpegiko keinua aldatu zitzaidala aitortu behar dut, baina laguna autoa gidatzen zihoan eta ez zen konturatu. Jarraitu zuen misterioa argitzen lagunak: "Crowdfunding bidez finantziatu da proiektua, eta gaurko emanaldia Fredi Pelaezek grabatuko du. KEA abesbatzak eta Ana Belen Garcia organo-jotzaileak interpretatuko dute Arantzazuko santutegian".

Kontzertu aurreko kafea hartzen ari ginela, mugikorra kontsultatu eta datu gehiago eman zizkidan lagunak: "Asier Lopez Iraolaren –Asier Li– egitasmoak sexu eta genero nortasunaren inguruan egiten du hausnarketa. Horretarako hainbat pentsalari feministen lanak ikertu eta haien ideiak trinkotu ditu hainbat konposiziotan, bildumak duen narratibotasuna utzi gabe. Hala nola Simone de Beauvoir, Judith Butler, Silvia Federici, Martha C. Nussbaum, Angela Davis, Monique Wittig, Virginie Despentes eta beste hainbat". Hori bai ezustekoa! Aurpegiko keinua berriro aldatu zitzaidan, zeharo.

Sartu ginen santutegian eta eseri ginen aurrealdeko eserlekuetan. Atera ziren dozena bat abeslari eta abesbatzaren zuzendaria. Isiltasuna hedatu eta hasi zen emanaldia. "Gor-pu-tza e-rai-kun-tza bat da. Lo-tsa ni-re men-pe-ko-ta-su-na ba-bes-ga-be-ta-su-na haus-kor-ta-su-na", harmonikoki erreztatzen hasi ziren hamabi ahots miresgarriak, gizarte txiki baten oihartzunak balira bezala. Sentsibiltate sakonago eta askeago bateruntz urrats bat gehiago egiten ari den gizarte baten ahotsa entzuten ari nintzela iruditu zitzaidan. Eta Arantzazu bezalako indar femenino telurikoa duen toki batean gertatzea ez zitzaidan ustekabekoa iruditu. ■■■

**"ORGANO"
HITZA ENTZUN
NUENEAN
APUR BAT IKARATU
EGIN NINTZEN**

MARKETING DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA       ZERBITZUAK

Lekukoa mingainean



MIREN ALBERDI

Aurten ez ditu Korrikak karrikak jendez bete. Ez dugu lekukoa eskuz esku eramane. Baina Korrikak bere duen aldarria kalean izan da. Gu ere izan ginen; Balda Plazan elkartu ginen, euskalduntze mugimenduaren garrantzia plazaratzeko, martxoaren 28an, eguerdiko hamabietan, 22. Korrika amaituko litzatekeen egun eta orduan. Ezin dugu alde batera utzi Korrikak berekin dakarrena; are gutxiago pandemia garaian. Feminismoa bezala, euskara ere behar-beharrezkoa dugulako gure herrian, Euskal Herrian.

Horretarako, euskaltegiak behar ditugu. Izan ere, Euskal Herriko herritarren %55 erdalduna da, erdia baino gehiago, alegia. Azkoitiaren kasuan, %13,9 da erdalduna. Gure herria arnasmune omen da. Horrela izaten jarrai dezan, herritar helduen euskalduntzea eta alfabetatzea beharrezkoak ditugu, guztion eskubideak bermatzeko zubia direlako. Beraz, euskaltegi sendoak behar ditugu; bide onetik goaz, urtero 45.000 herritarretik gora euskara ikasten ari baitira horietan, baita pandemiak eragindako ikasturte ezohiko honetan ere. Azkoitiko AEKn, batez beste, urtean 104 ikasle aritzen dira. Hurrengo ikerketan, beraz, Azkoitian euskaldun gehiago agertuko direla aurreikus dezakegu. Hala ere, beti dago matrikula ezin ordainduta, euskara ikasi gabe

gelditzen denik. Aurreikuspenak bete daitezene, *Bultza ditzagun euskaltegiak! Bultza dezagun euskara!*

Duela 55 urte Rikardo Arregik bidalitako gutun hartan argi islatu zen helduen euskalduntzea ezinbestekoa zela, orduan, euskararen biziberritze osoa lortzeko. Gaur egun, bide oparo eta nekaezina eginda ere (ikerketek diotenez, jendarteak azken hamarkadetan irabazitako hiltunetatik heren bat euskaltegietatik atera da), bistan da euskaltegiok buru-belarri segitu behar dugula lanean.

Korrika atzeratzeak zuloa eragin du AEKren aurrekontuan eta banku bidezko finantzaketarekin eman zaio erantzuna. Zorpetze horri ere aurre egin beharko zaio. Hurrengo ikasturtean izango den Korrikak babes erraldoia jasoko duelakoan gaude, benetan behar dugu eta. Birtartean, ekarpen ekonomikoa egiteko aukera dago AEKren webgunean.

Laburbilduz, euskaltegiak ezinbestekoak dira Euskal Herri euskalduna izateko; eta, bide horretan, herritarren nahiz eragileen babesaz gain, administrazioen laguntza ere behar-beharrezkoa zaigu.

Bultza ditzagun euskaltegiak! Bultza dezagun euskara! Gure ondorengoek eskertuko digute. Argi dago, Euskal Herria euskalduna izango da edo ez da izango! ■■■

Bertsoa paperean

Gaia: Gazteok pandemian
Doinua: Trumoa ortzi beltzean
hoska

Egilea: Haritz Alberdi

COVIDak urtebete inguru
pandemian itota gaude gu
Labiak hartutako neurriek
ez dute beti lagundu
polizia jazarpen, isunak
nonahi ikusi ditugu,
gazteok zenbat apuru,
kriminalizatu nahi gaituzte
baina errurik ez dugu.

Denon ardura da gogoeta,
zenbat kutsatu, zenbat hileta,
krisi ekonomiko handi bat
ezin mantendu oreka,
dena salbatu nahian Moderna,
Pfizer ta AstraZeneca,
altxa dezagun kopeta,
amesgaizto honen amaiera
iristear dago eta!



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



San Juan Auzoa, 16 · AZKOITIA · ☎ 943-85 21 10 · www.biyona.net

ikastolak

hezkuntza eraldatzen

BATXILERGOKO AURREMATRIKULA

**ESKABIDEAK
EGITEKO EPEA:**

**2021EKO APIRILAREN
12TIK 23RA**



azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.



Loiolako Inazio hiribidea 26 • 20730 Azpeitia

Tel.: 943 15 12 46

ikasberri@azpeitikoikastola.eus

www.azpeitikoikastola.eus

**MILAR
LARRAMENDI**

Etzetresna elektrikoak



Julio Urkixo, 16 • AZKOITIA • 943-85 18 97 • www.milar.eus



TK

KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943 85 20 52 • Faxe: 943 85 20 91

j.artetxe@fkkopistegia.es